



Hotsein da hotsein

Andra Mari ikastolak "arrakastatsutat" jo zuen Nafarroa Oinez / 8-15



Milaka zale bildu ziren 41. Urbasako Igoeran. Ordoki eta Blas, protagonista nagusiak / 18-19

Iratxe Lapuente irristalaria, Iruñea Gares maratoiko junior mailako txapelduna / 17

Bost musika eskolen aurrekontuaren %13,57 besterik ez du betetzen Gobernuak / 6

Aldakin Taldeak konpositeak mekanizatzeko robota aurkeztu du, elkarlanean sortua / 6

Koldo Arnanz 'Nire barnekaldiak' margoen erakusketa hilaren 31ra arte, Pikuxarren / 23

KOMERTZIOAREN
MODERNIZAZIOA EGIN DUGU

HEMEN GAUDE!

San Juan kalea 40, Altsasu

Sakanaoptika
optometriak • audiometriak • kontaktokologia

948 563 124

Erkuden Ruiz Barroso EGIARRETA

Juantxo Madariaga Orbea historian doktorea Egiarretan bizi da, eta urriaren 5ean *Notitia Vasconiae. Baskoniako historialarien, legelarien eta pentsalari politikoen hiztegia* aurkeztu zuen Pikuxarren. Irurtzango euskal txokoak eta Arakilgo Udalak antolatu zuten ekimena. Euskal Herriko historian zeresan izan duten pertsonaien entziklopedia lau liburukiz osatuta dago, eta Madariaga hirugarren eta laugarren tomoen koordinatzailea izan da: "Ez da liburu bat, baizik eta entziklopedia bat. Osotasunean 3.000 edo 4.000 orrialde daude; mar-dula da".

Zein izan da zure ibilbidea?

Historian doktorea naiz eta urte dezente Bergarako UNEDen eskolak ematen egon nintzen. Gero Nafarroako Unibertsitate Publikoan irakasle izan nintzen, eta oraintxe, duela gutxi, jubilatua naiz. Jubilatua nintzenean hiztegia egiteko eskaintza etorri zen. Baten batek pentsatuko du: jubilatua berri da eta orain ahal duenez aurrera. Horrelako zerbait izan zen. Irailean jubilatua nintzen eta eskaintza hurrengo urteko urtarrilean etorri zen; jubilatua eta gutxira. Hasieran NUPen irakasle asoziatu bezala egon nintzen eta hogeitau urte baino gehiago irakasle izan nintzen. Egiarretan bizi naiz; Iruñera klaseak ematera etorri nintzenean Arakilen erroto nintzen. Kultur historian espezializatutako historialaria naiz: euskara, hizkuntza, heriotza, pentsamoldeak eta abar, eta nire espezialitatea XVIII. mendea da. Nire tesia *La actitud ante la muerte* izan zen.

Zergatik koordinatu duzu? Nola iritsi zinen proiektura?

Hirugarren eta laugarren liburukiak koordinatu ditut. Hasieran zuzendaria Roldan Jimeno zen eta ni egile bat nintzen. Hirurehun bat egilek parte hartu dugu. Orduan, ni egile moduan ahots batzuen inguruan eta sarrera batzuk idazten hasi nintzen. Bertan pertsonaia,



Juantxo Madariaga historialaria. UTZITAKOA

"Notitia Vasconiae" kontsultarako lan bat da"

JUANTXO MADARIAGA ORBEA HISTORIALARIA

Egiarretan bizi den historian doktoreak Euskal Herriko historiako historialari, legegile eta pentsalari politikok biltzen dituen hiztegia koordinatu eta aurkeztu du

historialari, jurista edo pentsalari politikoen biografiak agertzen dira, Oihenart, Serapio Mujika eta abar luze bat. Beraz, egile moduan hasi nintzen eta Roldan oso lanpetuta dagoenez eta lan hori ondo ezin zuenez aurrera eramanez, ni ordezeko moduan sartu nintzen hirugarrena eta laugarrena koordinatzeko.

Nork bultzatu du proiektua?

Proiektu hau fundazio batek bultzatu du: *Iure Vasconiae*. Euskal Herriko Unibertsitatearen proiektua zen eta fundazioa bultzatzailea izan zen: Gregorio Monreal, Roldan Jimeno eta beste ikertzaile batzuk egon dira atzean. Fundazioaren helburua zuzenbide historikoa ikertzea da. Orduan, urtero sinposio edo jardunaldi bat antolatzen du eta bertan lantzen dena publikatzen du fundazioak. Beraz, aldizkari bat publikatzen du eta, bestetik, hainbat ikerketa eta argitalpenak egiten dira, adibidez, hiztegi hau. Fundazioa duela denbora dezente hasi zen proiektu hau mugitzen. Gertatzen zena zen oso garestia zela, eta dirurik ez zegoela. Azkenean, 2008an mugitzen hasi zen eta 2016an fundazioak proiektuarekin aurrera egiteko dirulaguntza lortu zuen; Eusko Jaurlaritzak eta Petronor enpresak finantzatu dute ikerketa lan hau.

Zein izan da prozesua?

Diseinatzeko orduan kontuan izan dugu zein pertsonaia sartu eta zeintzuk ez, eta pertsonaia bakoitzaren sarreraren tamaina. Izan ere, garrantzi desberdinak daude: demagun Tomas Meabe edo Sabino Arana pentsalari politikok eta beste bat hain ezaguna ez dena. Hortaz, batzuk hiru orri izango dituzte eta beste batzuk bost edo sei. Hainbat adituei eskatu diegu sarrerak egitea eta topatu ditugun egileak pertsonaia horietan oso adituak dira. Lana enkargatu eta enkargua onartzen bazuten jarraipena egin behar genuen. Hirurehun bat egileen artean estilo desberdinak daude, eta hori orekatu



EGOKI
Ventanas PVC Leihok


www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea • Olazti

**EROSOTASUNERAKO
PENTSATUAK**

Diseinu soileko lehiak berriak

Erakusketa: Olite kalea 16 • Iruñea



behar genuen ere, batasun pixka bat eman. Lanak hiru bertsiotitu: gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez. Gaztelaniazko bertsiotia aurtan bukatu dugu, euskaraz lehenengo publikatu dugu eta orain inprentan bigarren eta hirugarren liburukiak sartu dira, eta ingelesez lehenengo eta bigarrena publikatzeko daude, eta laster hirugarrena sartuko da ere.

Historiako zein etapa hartzen du lanak?

Lehenengo liburukian antzinaroa, erdi aroa eta aro modernoa sartzen da. Lehenengo aipamenak erromatarrenak, bidaiarriak, militarrenak, arabiarrenak, godoenak eta abarrenak dira. Ez ditugu bakarrik euskal historialariak edo juristak jarri, kanpotarrak Euskal Herriari buruz idatzi bazuten ere sartzen dira hiztegi honetan. Orduan, lehenengo liburukian asko eta asko kanpotarrak dira. Edozein kronista hemendik pasa zela eta Euskal Herriari buruz hitz egin zuena, sartzen da. Bigarren liburukia Frantziako Iraultzatik Foru aboliziora doa, 1876ra. Hirugarrena garai horretatik 1936ko estatu kolpera, eta laugarrena Espainiako gerra zibiletik gaur egun arte, 2022ra arte. Azkenengo tomo honetan bakarrik hilda dauden autoreak sartu ditugu, bizirik daudenak ez gara ausartu, eromena izango litzatekeelako.

Bosgarren liburuki baterako?

Ikusiko dugu.

Ikerketa lan handia egin duzue, ezta?

2016an hasi zen firme eta tinko proiektua martxan eta oraintxe bertan bukatu dugu gaztelaniazko bertsiotia, eta prozesuak oraindik jarraitzen du, beste bi bertsiotien argitalpenarekin. Urriaren 9an euskarazko hirugarren liburua bidali nuen. 2016tik 2022ra, beraz. Lan nekeza izan da egileak topatzeko eta euren hitzak betetzeko. Batzuetan egileek atzerapenarekin bidaltzen zituzten gauzak, eta pandemiak harrapatu gintuen ere eta dena askoz zailagoa izan da. Gure konpromisoa zen urtero liburuki bat ateratzea; ez dugu lortu, baina ia-ia. Hor ibili gara, lan asko eta konplexua egiten. Ez da samurra izan. Batzorde zientifikoa bat dago unibertsitate desberdinez osatuta: NUP, EHU, Nafarroako Unibertsitatea... Lurraldearen arabera izan-


da ere, lurralde batzuk oso kontrolatuta zeuden, eta beste batzuk zailtasun gehiago eduki ditugu ikertzaile gutxi dagoelako, esaterako, Iparralden. Unibertsitate ahula da, eta jendea aurkitzea kostatu zaigu. Bizkaian eta Nafarroan jende dezente dago, historialari eta jurista nahikotxo.

Nolakoak dira liburukiak?

Lurraldeka ordenatu dugu: Nafarroa, Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Iparralde eta kanpotarrak. Sarrera historiko bat dago irakurleari gutxi gora behera esparru kronologikoan eta lurralde horretan kokatzeko, eta gero hitzez hitz egileak agertzen dira: historialariak, juristak eta pentsalari politikoak. Biografia bat agertzen da oinarriko datuekin: non jaio zen, non hil, zer espezialitate daukan... Testu bat agertzen da non bere obra eta garrantzia azaltzen den, eta bere argitalpen guztien zerrenda. Hasierakoetan zerrenda osoa agertzen da, erdi aroan oso gutxi publikatzen zelako, baina XX. Mendean normalean oso zabalak izaten dira zerrendak, eta normalean hautaketa bat sartzen dugu, garrantzitsuena. Bai biografiak bai iturburuak zein materialekin egin ditugun aipatzen dugu ere. Pertsonaia bakoitza hiru edo lau orrialdetan doa eta kasu oso bereziak direnean bost edo sei orrialde izan ditzakete. Garrantzi handiko pertsonaietan pittin bat gehiago. Baina, bestela, saiatu gara nahiko pareko egiten, bestela asko luzatzen zen. Kontsulta edo erreferentzia obra bat da. Ikertzaile bat bere lana egiten ari denean eta pertsonaia jakin baten inguruko lana ezagutu behar badu, hor dauka oinarriko erreferentzia gaurkotua. Aditu batek egindako interpretazio oso gaurkotua da. Lehen bazen Auñamendi hiztegia eta badaude beste batzuk, Naparroko hiztegia, adibidez, baina oso orokorrak dira eta zahartu dira. Guk egin nahi izan dugu gaur egungo bertsiotia nazional bat: intelektual, historiagile, jurista eta pentsalari politikoen gaur egungo ikuspegi bat.

Espero ez zenuten zerbait topatu duzue?

Gutxi gora behera suertatu dena espero genuen. Adibidez, emakumeen presentzia oso murrizta izatea espero genuen, oso



'Notitia Vasconiae'-ren lehenengo liburukia, euskaraz. UTZITAKOA



Argitaratutako liburuki eta bertsiotia guztiak. UTZITAKOA

"2016AN HASI ZEN FIRME PROIEKTUA MARTXAN ETA ORAINTE BERTAN BUKATU DUGU"

"OIHENART LEHENENGO HISTORIALARI NAZIONALARI OMENALDIA EGIN NAHI GENION"

"HELBURUA EUSKAL HERRI OSOA HARTZEN DUEN LIBURU EDO ENTZIKLOPEDIA BAT OSATZEA ZEN"

gutxi agertzea, eta horrela izan da. Praktikoki XX. mendera arte ez dira emakumeak agertzen. XIX. mendean pare bat agertzen dira, baina hurrengo mendera arte ez dira gehiago agertzen. %5 inguru horretan egongo dira; oso-oso gutxi. Horrela izango zela pentsatzen genuen, eta gure aurreikuspena bete da. Gauza oso-oso berriak ez ditugu atera. Pentsatzen genuen zaila izango zela, eta zaila izan da. Egile fidagarriak eta obrarekin konprometituta lortzeko zailtasunak edukiko genituela pentsatzen genuen, eta horrela izan da. Espero genuen momentu batzuetan lurralde batzuk besteak baino presentzia gehiago izango zutela, eta horrela izan da. Esaterako, foruen aroan Bizkaian edo Gipuzkoan historialari edo jurista gehiago daude, eta Nafarroan garai ho-

retan gutxiago agertzen dira. Baina adibidez XIX. mendean Nafarroan gehiago daude. Gutxi gora behera espero genuena gertatu da.

Zergatik 'Notitia Vasconiae'? Non-dik dator?

Omenaldia egin nahi genion lehenengo historialari nazionalari: Arnaut Oihenart. 1638an *Notitia utriusque Vasconiae, tum Ibericae, tum Aquitanicae* liburua argitaratu zuen, Bi Baskonien historia, iberiarrarena eta akitaniarrarena, Euskal Herri osoari buruz hitz egiten duena. Gure helburua horixe zen, liburu edo entziklopedia nazional bat, Euskal Herri osoa hartzea, eta horregatik deitu diogu *Notitia Vasconiae*, Oihenarten omenez.

Zeintzuk dira zuk landutako lanak?

XVI., XVII., eta XVIII. mendeko egile batzuei buruz idazten hasi nintzen eta hirugarren eta laugarrenarekin askoz gehiago egitea egokitu zait. Kasu askotan ezinezkoa zen ikertzaileak topatzea, eta nik egin dut. Zerrenda luze bat daukat nik egin ditudan egileekin, 50 bat: Jakes Abeberri, Nikolas Alzola Gerediaga, Odon Apraiz Buesa, Maria Elena Azurmendi, Enrique Arriaga, Martin de Anguiozar, Policarpo Zia Nabascues, Maria Comas, Albert Constantent, Michele Elizanburu, Juan Erentxun, Juan Bautista Erro, Antoni Ertze, Baltasar Etxabe (hasieretako bat da hau), Jose Etxemungia, Esteban de Gabilra (XVI. mendeko garrantzitsuenetako bat), Fortunato Grandes, Miguel Herrero, Leon Iriart, Luis Martin Iribarren, Pablo Iñarregi, Jose Adriano Lizarralde, Jose Antonio Loinaz, Juan Lopez de Lazarraga, Jose Madinabeitia, Fernando Olaskoaga, Ruiz de Larrinaga, Jose Maria San Sebastian Latxaga ezizenarekin sinatzen zuena, Jose Salzaribar, Modesto Sarasola, Miguel de Unamuno, Juan Urrea, Luzio Urtubia, Pedro Vazquez, Joakin de Irizar eta abar. Denetarik egitea tokatu zait, Nafarroa, Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Iparralde eta kanpokoak.

Jubilatu bai, baina erretiratu ez.

Lehen baino lan gehiago izan da, bai. Txantxetan esaten dut, baina momentu batzuetan egi hutsa izan da. Ordu pila izan da, eguneroko. Baina horrela tokatzen da, eta gustura, gainera.



ASTEKOA

OIHANE ANDUEZA IMIRIZALDU

Heriotza, galderak, bizitza bera

Bizitzarekin zer egin pentsatzen dugun bitartean gertatzen den hura da bizitza bera, dio Claudio Naranjok, eta ni ados.

Astindu ederra izan dugu berriki, heriotza bere segarekin etorri eta hantxe eraman du gure laguna.

Hotzak jota, hutsuneak irentsita, bihotza ihartuta gaude. Zeri heldu?

Metafisikari atxiki natzia beste behin ere. Bizitzaren inguruko gogoetan murgildu naiz berriz ere, eta oraingoan, beti bezalaxe, misterioarekin topo egin dut.

Nondik ote dator?

Galdetzen diot neure buruari, lau hilabeteko alabari so. Lekuren batetik bada, ederra izanen da tokia, zalantzarik gabe.

Eta hildakoak, nonbaitera joango ote dira?

Heriotzak bizitzara lurreratu nau, dudarik gabe, eta alderantziz.

Fritz Perlsek zera zioen: *Erokeria kolektiboaren grina, dena kontrolatu nahi izatean datza*, eta hortxe aurkitzen dut nire burua, azalpenak, ulermenak dakarren kontrol horretara iritsi nahian, finean, sakoneko oinazeari erantzun bat eman nahi eta ezinean.

Oinazeari gordinki aurre egitea oso zaila suertatzen zait, honen aurrean, erantzunik gabeko galderetara jotzeko joera dut sarri.

Hasierako esaldira itzuliz, galdera hauek guztiak pentsamenduak direla ohartzten naiz, bizitzatik aldentzen nauen amaitezinezko labirintoa.

Bizi nadin, beraz...

Halabaina, zer da bizitza bera? Nola litzateke BIZITZEA? *Misterioa onar dezagun*, dio Naranjok.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Edari energetikoak eta horiek kontsumitzearen arriskuak

SAKANAKO PREBENTZIO ZERBITZUAK

Edari energetikoak nekearen aurkako sendabide gisa sortzen dira. Horren ondorioz, gero eta gehiago kontsumitzen dira azken urteetan, nerabeen/gaztetxoaren artean bereziki.

Edari estimulatzaileak dira. Kafeina, taurina, gluronolaktona, L- karnitina eta azukre pila bat dute. Ondorioz, gure osasunerako arriskuak dituzte, aurrerago azalduko dugun bezala.

Azken ikerketetan adituek kontsumitzeko adinean hasiera goiztiarra antzeman dute, hainbat faktoreri lotuta. Salmenta ez dago araututa, eta, gainera, edarien edo freskagarrien ondoan jartzen dituzte. Beste faktore bat edari arriskutsu edo arriskutsutzat ez etiketatzea da. Gero eta gazte gehiagok edaten dituzte

halako edariak, eta horrek kezka sortzen du, edari hauen arriskua ez delako hautematen.

Edari horiek askotan edari isotonikoekin nahasten dira, hau da, gatzak berreskuratze eta nekea saihesteko kirolarekin lotura handiagoa duten edariekin. Beraz, garrantzitsua da bereiztea.

Edari energetikoak edatearen arrisku nagusiak, batez ere adin txikiko eta nerabeetan, honako hauek dira: maila fisiologikoan, takikardia, tentsio arteriala handitzea eta arritmia; maila neurologikoan, insomnioa, suminkortasuna, estresa eta antsietatea eragin ditzake. Gainera, oraindik aztertze daude edari horien kontsumoak epe luzera izango dituen ondorioak.

Munduko Osasun Erakundearen arabera edari horiek obesitate-arriskua dute, azukre asko dutelako, batez ere sedentarisimoarekin batera badao. Horri gehitu behar zaio bere kontsumoa erregularra bada, eta batez ere nerabe edo gazteetan, mendekotasun fisikoa eta tolerantzia eragin ditzakeela, gehiago kontsumitzeko beharra sortuz.

Bereziki kezagarria da edari energetiko horiek edari alkoholdukin konbinatzea. Nahasketa horrek berekin dakar alkohol gehiago edatea eta irensketa luzatzea; izan ere, loaren sententzia murrizten du eta gaua luzatzeko aukera ematen du. Horren ondorioz, "Mozkorraldi esna" egoera sortzen da, eta osasunean kalteak luzatu eta areagotu egiten dira.



OBJEKTIBOTIK

Mahuka atera zuten igandean Nafarroa Oinezen

Igandean egiten zuen beroarekin, pertsona gehienak itzal bila ibili ziren Etxarri Aranaztik, baina beste batzuek alternatiba hobea aurkitu zuten; mahuka ireki eta goitik behera bustitzea. Fresko-fresko jarraitu zuten horrela festa.



guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhua Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Joxe Aldasoro Jauregi

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidor Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Osasun etxeak erakusketa gela

Burunda mendebaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak adimen osasunari buruzko argazki lehiaketara aurkeztutako irudiak eta haiek laguntzen dituzten testuak ikusgai izanen dira antolatzailearen egoitzan eta ibarreko hiru osasun etxeetan

SAKANA

Altsasu, Olazti eta Ziordiko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, Altsasuko osasun etxearekin lankidetzan, adimen osasunari buruzko argazki lehiaketa antolatu zuen udan. *Emozio ongizatea irudikatzen, zer da ongi sentiarazten zaituena?* leloa zuen lehiaketak. Yolanda Ormazabal Arratibel gizarte langileak azaldu duenez, "lehiaketaren helburua zen adimen osasunari buruzko irudi positiboa zabaltzea. Gaixotasun psikiatrikoaz haratago doan ikuspegia gizarteratu nahi genuen lehiaketarekin eta, alde horretatik, lehiaketak auto zaintza eta emozio ongizatea hartzen zituen barne". Bestela esanda, "ondo sentiarazten gaituzten gauzei, lekuei, pertsoneri eta abarrei buruzko irudiak saritu nahi zituen lehiaketak". Bestetik, lehiaketak "adimen osasunaren gaia gizarteratzeko" bide gisa baliatu dute. "Orain arte urtero jarduera bat egiten genuen. Mahai-inguruak, hitzaldiak eta halakoak izan dira. Baina formatua aldatzea erabaki genuen eta argazki lehiaketa antolatu genuen", azaldu du Ormazabalek.

Lehiaketara argazkiak aurkezteko gonbidapena 18 urtetik gorakoei egin zieten. Bi hilabetez



Argazki erakusketa Altsasuko osasun etxeko pasabide batean.

zabalik egon ondoen irudiak eta testuak jasotzeko epea agorrilarekin batera itxi zen, eta, guztira, 56 argazki aurkeztu dira, "parte hartzea polita da, pozik gaude jendearen erantzunarekin", esan du gizarte langileak. Lehiaketara aurkeztutako argazkiak Irurtzongo, Etxarri Aranazko eta Altsasuko osasun etxeetan eta Altsasu, Olazti eta Ziordiko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen egoitzan ikusgai izanen dira lastailan. Irudiarekin batera egileek argazkiaren deskribapen idatzi labur bat aurkeztu zuten lehia-

ketara. Eta biak izanen dira ikusgai erakusketan, argazkia eta hura laguntzen duen testua. Ormazabalek azaldu duenez, "ez dakigu lehiaketak segituko duen, lantaldean aztertuko dugu".

Bestalde, lastailaren 6an, ostiralarekin, 17:00etan, antolatzaileen egoitzan sari banaketa egingen da. Aurreneko saria, 200 euro, Estibaliz Salinas Burillorendako izan da. Bigarrena, 150 euro, Tiscar Duran Guiradorenako eta atzenekoa, 100 euro, Rakel Muñoz Agirrek eskuratu du.

Bi sakandar udal eta kontzejuen federazioko zuzendaritzan

Unai Razkin Iriarte, Irurtzongo alkatea, eta Silvia Sesma Nazabal, Etxarri Aranazko zinegotzia, daude

SAKANA

Udal hauteskundearen ondoren, toki erakundeak eratutakoan, udalez gaindiko erakundearen osaketaren txanda iristen da. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren txanda joan zen

ostiralean, lastailaren 6an, izan zen. Zuzendaritza aukeratzeko Batzar Nagusi Berezia egin zuten, eta Nafarroako toki entitateetako 300 ordezkari bako gehiagok Xabier Alcuaz Andueza Tafallako alkatea (EH Bildu) erakunde-

ko lehendakari gisa aukeratu zuten.

Saio berean, Batzorde Beteazlearen gainontzeko kideak ere hautatu zituzten. Bederatzi arlotako ordezkariak aukeratu zituzten. 3.000 biztanletik beherako udal bakunen ordezkarietako bat izanen da Unai Razkin Iriarte, Irurtzongo alkatea. Beste entitate batzuk ordezkatzuz Silvia Sesma Nazabal dago, Etxarri Aranatz aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen ordezkari gisa.



UTZUBARTXOREN TXOKOA

Kaixo! Utzubartxo naiz, urtero martxo aldera Arbizuko UtzubarEKOgunera hurbiltzen naizen sai edo putre zuria. Sakanan hilabete batzuk pasatzen ditudanez, tarte horretan Sakanako Mankomunitatearen Hondakin Zerbitzuko mezulari bihurtuko naiz.

Aipatu didate urria eta azaroa bitarte bost jostintza tailer ezberdin eskeiniko direla Sakanako Mankomunitatean. Hondakin zerbitzuak Erabilirekin elkarlanean prestatutako tailerrak dira.


Edozein tailerretan izena eman daiteke. Horretarako info.hondakinak@sakana-mank.eus helbidera idatzi edo 674 144 114 telefonora WhatsApp bat bidali izen-abizenak, tailerraren izena eta kontaktu bat emanez. Izena emateko epea urriaren 16an edo plazak bete arte izango da. Tailer bakoitzean gehienez 12 lagun egon daitezke "Estanpazioa familian" izan ezik. Tailer hau bikoteka gauzatuko da eta gehienez 12 bikotek parte har dezakete.

Animatu eta parte hartu!!!

Arropak berrerabili hondakinak murrizteko!!



Mank
s a k a n a



Utzubartxoren Txokoa Nafarroako Nafarroako Hondakin Funtzak finantzatu du. Hondakin Funtza bereizi ez diren hondakinak zaborteagan isurtzeagatik ordaintzen den zerga baten bitartez jasotako diruarekin hornitzen da.



Robota egin dutenak azalpenak ematen Mikel Irujo Amezaga kontseilariari. ALDAKIN

Aldakinek konpositeak mekanizatzeko robota egin du

Hiru enprekin batera egin du proiektua. Akitania, Euskadi eta Nafarroa euroeskualdearen finantziakoa du

ALTSASU

Aurretik beste proiektu batzuetan lankide izan dituenekin batera, Aldakin taldeak Cognirob proiektua garatu du. Ideko teknologia zentroa (Euskadi), École supérieure des technologies Estia (Akitania Berria) eta Dassault Aviation (Akitania Berria) izan dira Aldakin taldearen bazkideak. Enpresa altsasuarrak konpositeak mekanizatzeko robot bat aurkeztu zuen astelehenean, irailaren 9an. Robot berriak fre-satzeko makina konbentzionalen ordeaz aparailu "segurua, zehatza eta errentagarria" dela adierazi dute sortzaileek.

Produktu berriarekin Aldakin taldeak merkatu berri batera zabaldu du bere eskaintza: konpositeen mekanizazioa. Enpresako ordezkariak adierazi dutenez, "proiektu hori nazioarteko hazkunde izateko asmoz sortu da, bost urtera 2 milioi baino gehiagoko fakturazioa izango duena. Gainera, robotikako eta doitasunezko mekanizazioko dozena bat lanpostu kualifikatu baino gehiagoko sortzea ekarriko duena".

Robot berriaz

Zehazki, diseinatutako zelulak hautsa eta txirbila barnetik xurgatzeko sistema bat eta 6D ikusmenaren bidezko doitasuna handitzeko sistema bat ditu, "lan-bolumenaren barruko zehaztasuna hobetzeko". Gainera, sistema bat ezarri da "ebaketa-indarrek eragindako robotaren desbideratzeak konpentsatzeko, mekanizazioan zehar doitasuna

are gehiago hobetuz". Ondorioz, robota gai da "sortutako hautsaren %98 xurgatzeko eta +/- 0,15 mm-ko zehaztasuna lortzeko". Zehaztasun-maila hori "ohiko robotena baino hiru aldiz handiagoa da, eta sektore aeroespazialaren tolerantzia-baldintzak gainditzen ditu, +/- 0,25 mm-tik beherakoak".

Robotak aukera ematen du halako prozesuetan lan egiten duten langileen "osasun-arazoak" gutxitzeko. "Material konposatuaren fabrikazio industria oso kezkatuta dago material konposatuaren mekanizazioan sortutako hautsagatik, zuntz eta erretxinaren arnasketarekin lotutako minbizi arrisku potentzialagatik eta larrazalean, begietan, biriketan eta gibelean osasun arazo larriengatik", adierazi zuten Aldakinek. Proiektuak 150.000 euroko aurrekontua izan du eta Akitania, Euskadi eta Nafarroa Euroeskualdeak finantzatu du oso-osorik.

Enpresaz

Aldakin industria mantentzean, elektrizitate instalazioetan, elektrizitate armairuen fabrikazioan eta ingeniarietan aritzen da. Aurten 15,5 milioi fakturatzea aurreikusi du, joan zen urtean baino bi milioi, hau da, %14,81eko hazkunde. Gainera, enpresak 2023 urtea 220 langile baino gehiagorekin amaitzea espero du, aurreko urtean baino %10 gehiago. Altsasuko egoitzaz aparte, Aizoain, Gasteiz eta Andoainen ere baditu lantegiak Aldakinek.



Emakumezkoa Irurtzongo musika eskolaren ondoan. ARTXIBOA

Musika eskolendako 128.596,81 euro

Nafarroako Gobernuak dirulaguntza eman arren, musika ikasketen finantziakoa zati handiena udalen eta familien bizkar dago. Irurtzunen, Lakuntzan, Etxarri Aranatzan, Altsasun eta Olatzagutian daude udal musika eskolak

SAKANA

Foru administrazioak udal musika eskolendako dirulaguntzen deialdia ebatzi du. Deialdiak zituen 3,2 milioi euroetatik 128.596,81 euro, %4,01, jasoko dute Sakanako bost musika eskolak, joan zen urtean baino 6.822,28 euro gehiago. Hezkuntza Departamentuak emandako laguntza hori musika eskoletan

udalek egindako inbertsioa ordaintzeko erabiliko da. Ordainketa bi epetan egingen du departamentuak. Berez, musika eskolen aurrekontuaren heren bana udalarena, Hezkuntza Departamentuarena eta ikasleena izan beharko luke. Baina gobernuak ez du dagokion zatia ordaintzen.

Sakanako bost musika eskolek 947.920,26 euroko aurrekontua

dute eta haren %13,57 jaso dute bakarrik. Beraz, udalen eta ikasleen bizkar gelditzen da musika eskolei eustea. Diru banaketa egiterakoan ere hainbat elementu sartzen dira barremazioan, besteak beste: ikasle kopurua, haien adina, ikasitakoa, ikasleek goi ikasketak egiten segitzea edota ikasturteko ikasgai kopurua.

Udal musika eskolendako dirulaguntza

Udala	Eskolen aurrekontua	Dirulaguntza	Laguntza aurrekontuaren %
Irurtzun	174.270,00	37.241,99	21,37
Lakuntza	140.896,80	15.599,89	11,07
Etxarri Aranatz	168.785,10	33.551,93	19,88
Altsasu	421.596,36	28.079,80	6,66
Olatzagutia	42.372,00	14.124,00	33,33
Guztira	947.920,26	128.597,61	13,57

DEABRUV ADINTSU, HORREGATIK JAKINTSU



EDO EZ?

**HARPIDETU ZURE HERRIKO ALDIZKARIAN
eta jaso liburu-sorta bat doan.**

* Harpidetzen diren lehen 10 lagunek hiru liburu doan
dituen sorta bat jasoko dute.

nafar
PRES

Asociación de la
Prensa Local de Navarra
Nafarroako Tokiko
Prentsaren Elkartea

Gobierno de Navarra  Nafarroako
Gobernua

FESTAK

ARBIZU

XIII. TXISTOR EGUNA

URRIAK 14 Larunbata

18:00 Nafarroako XVIII. Erremonte Txapelketa.

URRIAK 15 Igandea

Goizean zehar, ardoa eta pintxoak, plazan. Txerri produktuen erakusketa. Arbizuko argazki zaharren erakusketa.

10:00 Diana Arbizuko fanfarrearekin.

10:30 Azokaren irekiera.

11:00 Nafarroako Trikitilarien bilkura.

11:30 Pintxo lehiaketaren hasiera. Arbizuko erraldoiak, Haizeberri Dultzaineroak taldeak lagunduta.

12:30 Haizeberri Dultzaineroak, herrian zehar.

13:00 Sakana Kantuz taldea, plazan.

15:00 Azokaren itxiera.

17:15 Nafarroako Trikitixa Eskolen VI. Jaialdia.

19:00 Xaibor disko festa.



Etxarriko Gizarte Zerbitzuek eta Biak Bat

Bi aldeek hitzarmena sinatu dute. Garapenean zailtasunak dituztenei animaliek lagundutako terapia programan parte hartzeko erraztasunak emanen dizkie akordioak. Elkarateak aurretik Burunda mendebaldeko mankomunitatearekin zuen hitzarmena

SAKANA

Etxarri Aranatz aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak eta Biak Bat elkarateak hitzarmena sinatu dute. Haren bidez elkaratearen *Lau zango, milaka irri* programa mankomunitatearen eremura zabalduko da, hau da, Lakuntza eta Urdiain artera. Garapenean zailtasunak dituzten haur, gazte eta familiei zuzendutako programa hori animaliek lagundutako terapia programa berritzailea da. Elkartetik adierazi dutenez, "animaliek ez dute aurreiritzirik, ez dute diagnostiko batekin lan egiten eta ez dituzte haurren arazoak ikusten".

Biak Bat-ek programa 2015ean abiarazi zuen, eta 2017an Burundako mendebaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin hitzarmena sinatu zuten. Beraz, gauegun Lakuntza eta Ziordia arteko udalerrriak bere baitan hartzen ditu. Programak aipatu udalerrietako 6 hilabete baino gehiagoko herritarrek baliatu deza-



Elkaratearen egoitzatik ateratzen.

kete, beti ere, gizarte zerbitzuetako erabiltzailea badira eta gizarte esku hartze batean barruan badaude. Terapia saioen ordainketa, errenta aitortpenaren araberaren egingen da eta zati bat familiak ordainduko du eta bestea

Gizarte zerbitzuek. Hitzarmenek programetan parte hartzeko dirua traba ez izatea erraztu dute.

Bestalde, elkarateak ikasturte honetan bi berrikuntza ditu. Alde batetik, familia eskola. Pertsona zentratutako arreta integralaren oinarriak eta tresnak ezagutzeko saioa Biak Bat elkarateko familiei zuzendua eta interesa duten beste familiei irekia da. Elkaratearen egoitzan hilaren 21ean izanen da.

Bestetik, boluntario trebakuntza saioak antolatu ditu elkarateak, jokabideari lotutako laguntza positiboan emateko. Honako gaiak ikasiko dituzte: jokabideari lotutako laguntza positiboaren oinarriko printzipioak, ebaluazioa eta behaketa, prebentzio neurriak eta krisi egoeretan esku hartzea nola egin. Saioak azaroaren 18an eta ilbeltzaren 20an izanen dira, goizez. Elkaratearen egoitza fisikoan edo birtualean eman daiteke izena.

DUELA 25 URTE...



Arruazuko ezquila dorrea botatzear

Aurreko eliza botatzen ari zela ikusita, Arruazuko Udalak berria egitea erabaki zuen, eta berria 1945eko garagartzaroaren 10ean mustu zuen. Aurreko elizatik sakristia, eliza ataria eta ezquila dorrea mantendu zituzten. Ordutik mantentze lanak egin bazituzten ere, urteak ziren dorreak konponketa premia zuela: itxesurak zituen, haietatik sartutako urak erlojuaren poleari eusten zioten zurak usteldu zituen, eta erlojua ez zebilen. Gainera, dorrearen egitura mugituta zegoen, eta ez erortzeko puntalak jarrita zeuzkan.



ARTXIBOA

Uholdearenak

Dorraon hainbat pista konpondu zituzten 2021eko uholdeengatik. Nafarroako eta Espainiako gobernuek erdibana ordaindu zituzten lanak, baina atzenak ez zituen kontzejua toki erakundetzat hartu eta Ergoienako Udalak egin behar izan zuen eskaera.

Alfredo Alvaro Igoa ETXARRI ARANATZ Andra Mari ikastolako komunitateak euskararen aldeko festa erraldoia antolatzeko erronkari oso ongi erantzun dio. Askorendako festa gogoangarria izan zen igandekoa. Balorazioen txanda iritsi da ere.

Ajerik utzi dizue Nafarroa Oinezek?

Bai, bai, arrasto oso positiboa utzi du. Sentsazio uholde bat daukagu denok hemen, familiak, langileok... Oso sentsazio positiboa. Nekea ere bai, baina geldi-geldi buelta ematen ari gara. Dena bere onera itzultzen ari da, jasotzen eta garbitzen aritu gara eta, jada, ia-ia bukatuta dago dena. Orain errekueratzeko badauzkagu egun batzuk, eta eskertuko dugu.

Zer aho zapore utzi du?

Oso zapore ona utzi du. Gainera, hainbat zentzutan. Batetik, igandean milaka euskaltzale elkartu ziren Etxarri Aranatz, Euskal Herriko punta guztietatik etorritako. Horren babesa sentitzea izugarria izan da. Izugarria izan da ere bai Etxarri Aranatzetik, eta Sakanatik orokorrean, jaso dugun laguntza. Igandean mila boluntario egon ziren lanean. Baina, horretaz aparte, jende askok utzi dizkigu larreak, beraien makinaria, beraien baliabideak, dena aurrera atera ahal izateko, oso-oso jarrera onean. Eta, barrura begira, urte eta erdiko auzolan erraldoi honek ere utzi duela oso arrasto polita. Nik uste dut gure komunitatea orain sendoagoa dela, kohesionatuta dagoela. Behintzat ni hitz egiten ari naizen jende guztiarekin oso pozik daude. Barrura begira ere harreman oso politak sortzen dira. Neurri handi batean jarri genituen helburuak hein handi batean bete ditugu.

Balantzea noiz egingen duzue?

Oraindik ez dugu hitz egin. Azken egunetan dena jasotzen eta garbitzen lanpetuta ibili gara. Pentsatzen dute heldu den astean elkartuko garela. Edozein kasutan, balantze ekonomikoak egitea hilabeteak kostatzen da. Oraindik kontu korronteak zabalik daude, udaletatik jasotzen da laguntza, Oinez Basoa azaro bitartean egonen da zabalik. Kontu eta faktura guztiak eta abar, hilabeteak hartzen dute. Jendearen parte hartze aldetik, ez daukagu datu zehatzik, baina badakigu tren guztiak bete zirela, Renfe oso pozik zegoen. Aparkalekuak izugarri bete ziren, 300 autokaraba-

"Gure komunitatea orain kohesionatuta dago"

IÑIGO ORELLA ALZUETA ANDRA MARI IKASTOLAKO ZUZENDARIA

Aparretan egotetik beherako jaitiera mantsoan dira Andra Mari ikastolakoak Nafarroa Oinez festa antolatu ondoren

na egon ziren. Etxarri Aranzko eta Arbizuko kanpinak gainezka egon ziren. Geneukan espektatiba sobera bete zen. Eguraldia bikaina izan genuen, bikainegia behar bada. Oso pozik.

15 batzorde. Bakoitzak bere balorazioa eginen du, ezta?

Bai, halaxe da. Lekukoa Zangoza ikastolari pasatu genion; azaroan haiekin topaketa izanen dugu. Batzorde bakoitzak bere urte osoko memoria edo hausnarketa egiten du. Eta beraiekin partekatuko dugu. Beraiendako informazio garrantzitsua dago. Batzuok besteengandik ikasten dugu. Guk izandako akatsetatik, esperientzietatik, zuzenketak egiten dira. Ideia berriak ere sortzen dira: "hau horrela egin dugu, baina berriz egin beharko banu beste modu batean eginen genuke". Horri esker festa garatzen eta hobetzen joaten da.

Puntu ilunik izan da?

Ez da izan puntu ilun aipagarririk, ez. Igandean bertan ez zen egon aparteko arazorik, ohikoak direnez aparte. Momenturen batean beharbada jende pilaketa izan zen punturen batean edo bestean, osasun zerbitzuek artatu behar izan zuten pertsona bat edo beste, baina ez ezer larririk ez. Halako jende pilaketak beti sortzen ditu hainbat arazo, horren



Iñigo Orella Alzueta Nafarroa Oinezeko irekiera ekitaldian. UTZITAKOIA

barnean sortzen diren intzidentziak egon ziren.

Txalotzeko modukorik izan zen?

Nik badaukat beste Nafarroa Oinez-eko esperientzia, langile bezala beste ikastola batzuetan eta hemen Etxarrin 2009an. Eta nik esango nuke barne giroa, elkarlana izugarria izan dela, ez da egon aparteko gorabeherarik antolakuntzan, eta jendea oso-oso jarrera onean aritu da urte osoan. Dugun giza kapitala oso-oso garrantzitsua izan da eta, gainera, kanpotik hala adierazi digute. Beste festen eta beste urteetako erreferentzia duten pertsonak, ohiko arduradunek eta hala esan digute: "sekulako lan taldea daukazue, egin duzue primeran, makinariak oso ongi funtzionatu du, oso ongi eta oso harro egon behar zarete". Bestalde, puntu morean aspertu ziren egun osoan zehar. Horrek esan nahi du sexu erasorik ez zela egon.

Orain dela 11 hilabete esan zenuen aurretik zenuena intentsua izanen zela. Hala izan da?

Bai. Orain ohartzten gara. Batzorde batzuk lana bukatu dute, beste batzuek ez, oraindik gelditzen zaie. Baina neurri batean pertsiana pixka bat jaisten hasi gara.

"SENTSAZIO UHOLDE BAT DAUKAGU DENOK HEMEN. OSO SENTSAZIO POSITIBOA"

"DUGUN GIZA KAPITALA OSO-OSO GARRANTZITSUA IZAN DA. KANPOTIK HALA ADIERAZI DIGUTE"

Eta, beno, emozio sumendia, tsunamia, izugarria da. Intentsua izan da. Atzera begiratzen duzu, eta, "jo, hau guztia guk egin dugu". Oso zapore polita. Oso hunkituta gaude, bai.

Nafarroa Oinez-en honen pertsiana azaroan itxiko duzue erabat?

Batzorde batzuk oraindik otsailera arte izanen dute lana, babesletzak eta ekonomiak hilabete batzuk lanean jarraitu behar dute. Ekonomia kontuak ixtea hilabetak kostatzen da. Askok aste honetan bukatuko dute lana eta memoria prestatzen hasi beharko dira. Baina gauza batzuk gelditzen dira oraindik. Jarritako helburuetako bat ekonomikoa zen, DBHko eraikina zaharberritu beharra baitu. Lortzen dugunean denon eskura egonen da, Sakanan, gure herrietan, zerbitzu hobea emanen duen eraikina izanen da. Oraindik aukera dago babes ekonomikoa emateko.

Zer aholku eman zenieten zangozarrei igandean?

Esan genien lekukoa pasatzeak, lekuko horrek adierazten duena, ordezkatzeko duena gauza handia dela. Aholkatu nien lekuko hori toki publikoan izatea, baina ez bakarrik fisikoki ere, pixka bat horrek dakarren guztia denon artean partekatzeko. Eta aukera ona dela ere kohesionatzeko. Animo handia, zeren beti sortzen dira bidean oztopoak. Eta maitasuna ere bai.

Andra Mari ikastolako komunitateak nola ospatuko du?

Oraindik ez dugu pentsatu. Dena ixten ari gara. Bildutakoak bideratzen, materialaren zati bat Zangozan dago dagoeneko. Beste gauza batzuk bidali behar zaizkie. Momentuz, ikastolako gurasoen batzordearen aldetik esker ona adierazi zaio komunitate osoari. Baina zerbait egin beharko dugu.

Txalaparta

Taberna

948 467 070
Zumalakarregi plaza
ALTSASU

Autoen seguruak

MAPFRE
La seguridad por encima de todo

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM
948 563 354
jimazpr@mapfre.com
San Juan 48
ALTSASU

Zure esperientziarik onena PREZIO ONENEAN

PORTUKO
okidenaia

Altsasu: 948 563 822 (denda) | 948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranz: 948 460 988

Nafarroa Oinez iruditan



Nafarroako ikastolen ordezkariak oholztan.



Zinta moztuta, festa hasi zen.



Andra Mari ikastolako ikasleek logoa osatu zuten.



Irene Lopez Goñiri omenaldia, erretiroa hartu duen pedagogia taldeko kidea.



Andra Mari ikastolak Jesus Senar irakasle ohia omendu zuen.



Ordezkariek Kultur etxera iritsi zirenean, Etxarriko Abesbatzak abesti bat eskaini zuen.



Lekukoa Zangotzako ikastolari eman zioten.



Itsasontziaz lagunduta joan ziren ordezkariek.



Behelanoarekin hasi zen jendea iristen.



Musikari ezberdinek alaitu zuten ibilbidea.



Erraldoiak jendeari ongi etorria egiten.

NAFARROA OINEZ 23
Mila esker
 Nafarroa Oinezera
hurbildu zareten
guztioi!

Zuri esker ozenago
hotsein
ahal izango dugu

hotsein! ANDRA MARI KASTOIA ikastolaren karia guaixe



Etxepare Lizeokoak, Baxoa euskaraz egiteko aldarrikapenarekin iritsi ziren Erronkara.



Erronkaren probetako bat, urarekin plastikoan irristatzen.



Erronkako proba bat, Arakil ibaitik ura ateratzen.



Andra Mari II. taldeak laugarren postua lortu zuen Erronkan, eta Iruñeko San Fermin ikastolako ikasleek irabazi zuten.



Erronkan 12 ikastolek parte hartu zuten, eta 22 epaile izan ziren hauek laguntzen.



Haurrak Go!azenen ekitaldian gozatzen.



Herri kirolak izan ziren goizean.



Berain izan zuten lagun gerturatutakoek.



Bazkariko paella egin zuten sukaldari batzuk.



Txoznetan etengabeko mugimendua izan zen. ARGAZKIJABEAXXX



Belaunaldi guztientzako eskaintza egon zen egun guztian zehar.

EGUN ON SAKANA
Goizero 10:00-12:00
Errepikapena 14:00-16:00
web bidez: www.guaixe.eus
beleixe 107.3 FM



Gazteak kontzertuaz gozaten.



The Potes taldearen kontzertua.



Izozki eguraldia egiten zuen.



Kontzertuaz gozaten.



Alarma Morearen kontzertua.



Dantza asko egiteko parada izan zen.



Alerta Gorria taldearen kontzertua.



Txoznako langileek ere momentu alaiak izan zituzten.



Gozategi taldearen kontzertua.



Gaztez beteta egon ziren guneguztiak.



Boluntario askok egin zuten lan bertan.



Garbitzaileek sekulako lana egin zuten dena garbi-garbi mantentzen.



Gazteek batez ere kontzertuetan hartu zuten parte.



Elektrokela elektrotzarangaren emanaldia izan zen iluntzean, Etxarri Aranazko Gaztetxeak antolatuta.



Sarek antolatutako Skabideanen kontzertuak eman zion bukaera egunari. UTZITAKOA



Bi pilotariak, material aukeraketan. ASPE

PILOTA Ezkurdia Salaberriaren kontra, Lekunberrin

Asteburuan Lau eta Erdiko Txapelketako final laurdenetako ligaxka hasiko da. 2022ko txapel-duna, Joseba Ezkurdia, lehen sartuko da. Lehen jardunaldian, joan zen urteko Promozioako Lau eta Erdiko txapel-dun Iker Salaberria goizuetarra izango du aurkari, igandean Lekunberrin 17:00etan hasiko den jaialdian. Ezkurdia da faborittoa, baina erronka latza du aurretik.

BTT Pradejon-San Adrian ibilaldian izena ematea zabalik

Sakanako Mankomunitateak eta Barranka Txirrindulari Taldeak BTT mendi bizikleta ibilaldia antolatuko dute urriaren 29rako. Pradejonetik hasita, Sartaguda pasa eta San Adrianera helduko dira bikerrak, Ebroren paretik (47 km). Prezioa 10 eurokoa da (autobusa) eta izena ematea zabalik dago urriaren 24ra arte (kirolak@sakana-mank.eus).

FUTBOLA Kopa egunak Altsasurendako eta Etxarrirendako

Nafarroako Kopako lehen jardunaldiko ligaxka jokoan dago. Altsasu 15. multzoan dago. Universidad de Navarrari 1 eta 5 irabazi zion, eta igandean, 17:30ean Baztan B izango du aurkari, Elizondon. Etxarri 16. multzoan dago. Urriaren 12an Baztan izan zuen aurkari, eta urriaren 14an Asdeforren kontra jokatu du, 12:30ean, Amigon.

Murtaza zamaketariari elkartasuna Altsasun

MENDIA Irailaren 15ean Broad Peaken abandonatuta utzi zuten, baina bi alpinistek erreskatatu zuten. Txikonek Gurutzetara ekarri du, izoztutako behatzak tratatzera. Asteazkenean, lortian egongo da Ghulam, bere kasua azaldu eta laguntza jasotzen

Maider Betelu Ganboa ALTSASU

Aurrio Trepalari eskalada klubak Ghulam Murtaza sherpa eta zamaketari pakistandarra laguntzeko hitzaldia antolatu du urriaren 18an, asteazkena, Iortia Kultur Gunean, Pates Katealde eta Zitek Iturgintza enpresen babesletzarekin. Hitzaldian, Ghulam Murtazak berak, Alex Txikon alpinistak eta Akhond Ishaq bere lagun eta sukaldariak hartuko dute hitza. Ekitaldian diru bilketa egingo da, Murtazaren bidaia, egonaldia eta beharrezkoak dituen mediku tratamenduak jasotzeko 20.000 euro jasotzeko *crowdfunding* kanpaina martxan baitago.

Broad Peaken abandonatuta

Ghulam Murtazak 21 urte ditu eta, esan bezala, sherpa eta zamaketari pakistandarra da. Uz-tailaren 15ean Broad Peaken (8.047 m) hiltzeko zorian egon zen, bere zerbitzuak kontratatu zituzten bi bezero mexikarrek



Murtaza Sadpara sherpa eta zamaketaria. UTZITAKOA

mendian abandonatu zutelako, eskuetan izozte sintomak agertu zitzaizkionean. Ordu askoko igoera izan zen; bat-batean eguraldia aldatu, eta ordubete inguru gelditu behar izan zuten Murtazak eta bi alpinistak. Nekatu-

ta, izoztuta eta eskularruak bustita, izozten hasi zen.

Bi alpinista mexikarrek aurrea egin zuten eta Murtaza bakarrik utzi zuten. Ia inkontziente eta odola botaka, bere bizitza han bukatuko zela zirudienan

beste espedizio bateko bi mendizale, Wörle eta Buonome, bertatik pasa ziren, bere espedizioa utzi, eta Murtaza erreskatatu zuten.

Skarduko ospitalera helikopteroz eraman zuten. Bizitza salbatu zuen, ez ordea behatzak. Medikuek behatzak anputatu behar zizkiotela esan zioten, baina hori bere lanaren akabera zen, eta Ghulam Murtazak bi seme alaba eta guraso helduak ditu bere kargu.

Txikonen esku hartzea

Ghulam Murtazari gertatutakoa jakin bezain pronto, Alex Txikon alpinista ez zen gelditu. Murtazaren osaba, Ali Sadpara, asko ezagutzen du Txikonek, 2016an berarekin igo baitzuen Nanga Parbat. Horregatik Murtaza Euskal Herrira ekartzeko kanpaina abiatu zuen, bere lagun eta sukaldari Akhond Ishaq pakistandarrarekin batera.

Ghulam Murtaza Euskal Herrian dago. Gurutzetako ospitaleko pronostikoa ez da ona, baina Ghulamek ez du itxaropena galtzen. Azkenean, asteartean, ebakuntza egin zioten Madrigo Ruber Internacionalen, eta sei behatzetako falangeak anputatu zizkioten. Osatzen ari da.

Ghulam Murtazak, Alex Txikonok eta Ishq Akhond Ishaqek gertatutako guztiaren berri eman go dute asteazkenean Altsasun, eta, esan bezala, laguntza emateko aukera egongo da.

Imanol Erbiti, bide berria

TXIRRINDULARITZA 39 urte ditu, maila profesionalean 19 denboraldi egin ditu, guztiak eskuadra berean, eta gorenean dagoela –irailean Europako Txapelketetan lehiatu zen– txirrindularitza utziko du Imanol Erbitik. Palmaresa, ikusgarria: 13 Tour, 15 Vuelta, Giro bat, 8 Mundial, 3 Europako Txapelketa, 3 garaipen... baina, garrantzitsuenak, tropelaren errespetua eta miresmena.



MOVISTAR TEAM / GETTY IMAGES



Iratxe Lapuente Perez, Lagunak taldearen maillotarekin, P2P irristaketa maratoian, Garesera bidean. UTZITAKOA

"Ez nuen irabaztea espero; baina hor goian egon nahi nuen"

IRATXE LAPUENTE PEREZ IRRISTALARIA

IRRISTAKETA Irailaren 17an zieldiarra Iruñea eta Gares arteko irristaketa maratoian lehen juniorra izan zen. Orain, Lagunak taldearekin mailaz igotzea du jokoan

Maidar Betelu Ganboa ZIORDIA

Irailaren 17an P2P Nazioarteko Abiadura Irristaketa Maratoia jokatu zen, Iruñean hasi eta despeditu zena (42,195 km). Irristaketa maratoi eder eta gogorrenetakoa Lagunak klubeko Iratxe Lapuente Perez zieldiarrak lan ikusgarria egin zuen eta 17 urterekin junior mailako txapel-duna izan zen, bigarren urtez jarraian. Asteburuan Liga Nazionaleko bigarren mailara igotzea du jokoan Lagunak bere taldearekin, Oviedon.

Noiz hasi zinen irristaketan?

Olaztin hasi nintzen, 3 urte nituela, Juli Acebesekin. Ane ahizpa ere aritzen zen. Beranduago Sakana Patin taldera salto egin genuen, lehiaketa taldera, Oscar Zamarronekin. Oso gustura ibi-

"LIGA NAZIONALEKO BIGARREN MAILARA IGOTZEA DUGU JOKOAN MADRILGO PATIN DE OROREKIN"

li ginen. 2019 urtean Barañaingo Lagunak irristaketa taldera joan nintzen, pistan entrenatu ahal izateko. Sakanan betidanik egon gara irristaketa pista eskatzen, baina ez da egiten. Lehiaketan aritzeko, hobetzeko eta aurrera egiteko pista batean entrenatu beharra dago, frontoi batean ezinezkoa delako. Eta horregatik joan nintzen Lagunak taldera. Orain arte Leire Merino zen nire entrenatzailea, baina aurten Borja Navarrokekin ari gara. Aurre denboraldian astean hiru

egunez entrenatzen dugu, eta denboraldian astean lautan.

Distantzia motzak ala luzeak, zer nahiago?

Laburretan moldatzen naiz hobeki, abiadura lasterkaria naitzela esango nuke. Hala ikusten dut neure burua, nahiz eta gero maratoiak egin eta iraupen lasterkaria ere izan. Pistan eta zirkuituan abiadurako lasterketak gustuko ditut. Iraupeneko probetan kanporaketa proba oso gustuko dut, baina bestea, puntuaziokoa, ez horrenbeste.

Zer moduz doa denboraldia?

Batxilergoko bigarren mailan nago, eta ikasketekin batera Iruñeko joan etorriak egitea eta guztia uztartzea zaila egiten da. Ahizpak ikasturte horretan utzi zuen irristaketa, pentsa. Bestalde, denboraldiarekin ez naiz kekatuko, baina gehiago espero nuen. Nafarroako Txapelketetan bost domina lortu nituen, baina Espainiako Txapelketetan seigarren postua izan zen aurten egin nuen onena. Aurretik bi domina dauzkat. 2018an Sakana Patinen nobilela brontzezkoa lortu nuen 3.000 m puntuazioan, eta 2019an Lagunak taldearekin zilarrezko domina lortu nuen 500 m esprintean. Hobetzea eta Espainiako Txapelketetan lan hobea egitea gustatuko litzaidake, baina oso zaila da, maila altua delako.

Irailaren 17an P2P Nazioarteko Abiadura Irristaketa Maratoia jokatu zen, Iruñean hasi eta despeditu zena, eta junior mailan irabazi zenuen, bigarren urtez jarraian (1:28:12). Emakumezkoen sailkapen orokorrean zortzigarren izan zinen, eta probako sailkapen absolutuan 62. Kontentu egongo zara, ez?

Bai, oso pozik nago. Probak maila handia du, eta oso ezaguna da. Maratoi hau gustuko dut. Ez dut lehiaketa gisa ikusten, disfrutatzera joaten naiz. Oso pozik nago. **Joan zen urtean 16 urte zenituela juniorren mailan irabazi zenuen, eta aurten errepikatu duzu. Ikusgarria da.**

Beste kirol batzuetan junior edo jubenil maila berbera da, baina irristaketan jubenil mailatik junior mailara igotzen da. Hortaz,

"BALORAZIOA POSITIBOA DA, BAINA ESPAINIAKO TXAPELKETETAN HOBETU NAHIKO NUKE"

joan zen urtean ni jubenila nintzen, baina maratoian parte hartu nuen. Aitak eta biok antolakuntzarekin hitz egin, eta juniorren mailako irabazle izendatu ninduten, nahiz eta kategoria bat beherago aritu. Baina, aurten, 17 urterekin juniorra naiz eta trofeo irabazi dut. Oscar Zamarronek ere parte hartu zuen.

Eskerrak abiadurazko probetan hobeki ibiltzen zarela, bestela...

(Kar, kar...). Oso ezberdina da pista bati bueltak ematea edo maratoia egitea. Erresistentzia, abiadura, teknika... gauza asko dira. Pistan eta zirkuituan teknika erabatekoa da, hor fintzen dira ehunenekoak. Maratoian, aldiz, teknika baino garrantzitsuagoa da erresistentzia izatea, aldapak ongi entrenatzea, aldapa beheretan beldurrik ez izatea eta halakoak.

Maratoian bigarrenez junior mailan irabaztea espero al zenuen?

Espero, ez; baina hor goian egon nahi nuen. Lasterketetan oso urduri jartzen naiz eta oso gaizki pasatzen dut, baina maratoietan lasaigo nago eta horrek mesede egiten dit.

Hemendik aurrera, zer?

Zirkuituan entrenatzen ari gara, eta denboraldia bukatzen ari gara. Liga Nazionalean joan zen denboraldian bigarren mailatik hirugarren mailara jaitsi ginen, eta aurten bigarren mailara igotzeko borrokan gaude. Bi talde igotzen dira, eta horietako bat Amaya izango da, beharrezko puntuak dituelako. Bigarren postuagatik borrokan gaude gu, Lagunak taldea, Madrilgo Patin de Ororekin. Duela bizpahiru aste Castellonen lehiatu ginen, eta asteburu honetan, urriaren 14an eta 15ean, azken jardunaldia jokatuko dugu Oviedon. Hor erabakiko da gutako nor igotzen den bigarren mailara. Beraz, topera gaude. Eta geroago, azaroaren 12an, Behobia-Donostia egingo dut.

Denboraldiaren zer nolako balorazioa egiten duzu, orokorrean?

Positiboa. Pozik nago baina beti hobetu daiteke. Ilusio hori ere izan beharra dago, gehiago motibatzeke.

Eta hori guztia gutxi ez balitz, Zieldian txikiaren entrenatzen hasi zara, ezta?

Bai, aurreko astean hasi nintzen. Astearreetan eta ostiraletan irristaketan trebatzen irakatsiko diet zortziren bat haurrei. Ez dut aspertzeko betarik.



Andoni Blas Urbasan bigarren izan zen. Egindakoari esker, Nafarroako Monoplazen Mendi Igoeren Txapelketa irabaztea lortu du.

Ordoki eta Blas, finenak Urbasan

AUTOMOBILISMOA Arkaitz Ordoki alde handiz gailendu zen 41. Urbasako Igoeran. Podiuma Sakana Motorsporteko Andoni Blasek eta Durangalde Racingeko Josu Lertxundik osatu zuten. Udako eguraldiarekin, leporaino bete ziren Urbasako magalak

Maider Betelu Ganboa OLAZTI

Urbasak beti erakartzen du. Eta horri udako eguraldia gehitzen bazaio, gehiago. Bi faktore horiek bat eginda, milaka pertsona bildu ziren larunbatean Urbasako mendi magaletan eta Olaztiko kaleetan, Sakana Motorsportek arrakastaz antolatutako 41. Urbasako Igoera jarraitzeko prest. Zaleek gozatu ederra hartu zuten, pilotuek bere onena eman zutelako eta denetarik autoak ikusi ahal izan zituztelako, barketak, formulak eta bestelakoak. Urbasako Igoera Nafarroako Mendi Igoera Txapelketarako baliagarria zen, Nafarroako Junior Mailako Igoerarako puntuagarria, eta Formula Libreko Nafarroako Trofeorako puntuagarria.

Pantxo Egozkueri babesa

Lasterketa hasi baino lehen auto guztiak ikusgai jarri ziren Clincker pareko areto futboleko pistan, parke itxian. Ekitaldia Pantxo Egozkue pilotuari aitortza egiteko probestu zuen antolakuntzak. Izan ere, urriaren 3an istripua izan zuen pilotuak, Beriaingo industri gunean Urbasako Igoerarako prestatzen ari zela, eta larri dago. Pilotuek talde argazkia atera zuten taldekideari animoak bidaltzeko, eta Urbasako Igoerako lehen dortsalak Pantxo Egozkueren izena izan zuten.

Sakandarrak Igoeran

41. Urbasako Igoera:

1. Arkaitz Ordoki (Nova NP-03)	3:16.701
2. Andoni Blas (Speed Car GT 1000)	3:27.964
5. Iker Palacios (BRC B52)	3:36.596
16. Arkaitz Irigoien (Clio)	3:52.993
23. Iñaki Berdud (Renault Clio)	3:59.862
40. Mikel Mendinueta (Peugeot 205 Gti)	4:07.830
41. Asier Juanez (Renault Clio Sport)	4:07.969
48. Delfin Goikoetxea (Promo Racing Proto Alpine)	4:12.126

*Eneriz Besgak (Megane) eta Ander Gurmindok (Clio Sport) ezin izan zuten proba bukatu.

Ordokiren aurrera pausoa

Guztira 103 pilotuk hartu zuten irteera, eta horietatik 89k lortu zuten proba bukatzea. Azkeneko urteetako txapeladun Joseba Iraolaren faltan, Ignauto Motorsporteko Arkaitz Ordoki (Nova NP-03) zen favorito nagusia, eta pilotu nafarrak ez zuten aukera alferrik galdu. Ordoki Jaizkibelgo Igoera irabaztetik zetorren, guztiz mo-

"Auto azkarrekin lehiatzeko nuen kapritxoa bete dut"

ANDONI BLAS ARZELUS SAKANA MOTORSPORTEKO PILOTUA

Andoni Blas Arzelus pilotua Doneztebekoa da, baina Lakuntzara etorri zen bizitzera, familia-ekin. Malerreka Motorsport eskuderia Sakana Motorsport eskuderiagatik aldatu du, eta joan zen urtean ametsa gauzatu zuen: Speed Car batekin lehiatzea. Urbasako Igoeran bigarren, eta Nafarroako Monoplazen Mendi Txapelketa irabazlea da.

Giro ederra zegoen 41. Urbasako Igoeran. Zer nolako jendeketa!

Auto asko, zale asko, antolakuntza ona... Urbasako Igoera bikaina izan zen.

Horrek gehiago urduritzen al du?

Lasterketari begira urduritasun puntu hori izaten dugu, baina horrenbeste jende ikusita, gehiago animatzen zara. Ni behintzat.

Asistentzia gunean itxura lasaia zenuen, bada.

Lasterketa egunetan goizetan egoten naiz urduri. Jaikitzerakoan korapiloaren antzekoa sentitzen dut, baina behin lasterketako zirimolan sartuta, pasatzen da. Lasterketan jokoan duda-

naren edo unean uneko presioaren arabera batzuetan gehiago eta beste batzuetan gutxiago urduritzen naiz, baina ia beti nahiko antzeko ibiltzen naiz.

Larunbatekoa zure zenbatgarren Urbasako Igoera zen?

Bigarrena. Duela 7 urte egin nuen lehena, eta aurtun bigarrena. 18 urte nituela hasi nintzen auto lasterketan, eta duela 4 urte dena utzi nuen. Denetarik autoak izan nuen: 2006an Citroen AX batekin hasi nintzen eta gero hainbat izan nituen: Citroen Saxoa, Peugeot 106a, Lur Gaineko Rallyetan Ford Focusa... Beti nuen auto azkar, Speed Car edo hauetakoren batekin ibiltzeko txirrinta; halako auto batean ibiltzea falta zitzaidan. 4 urte geldirik egon eta gero, animatu nintzen. "Kapritxoa egin, eta gero berriz utziko dut" pentsatu nuen.

Joan zen urtean ekarri zenuen autoa.

Bai, iaz erosi nuen Speed Car GT 1000 auto gorria, denboraldi erdian, aurtengo denboraldiari begira. Erosi, eta lehenengo lasterketan puskatu nuen. Piezak ez zirela iristen, gauza

bat eta beste... ezin izan nuen joan zen urteko Urbasako Igoeran parte hartu. Igoera baino aste bat beranduago iritsi ziren piezak. Denboraldia galdutzat eman nuen.

Halako autoak gidatzea horrenbesteko aldaketa al da?

Bai. Ez dute zerikusirik gainontzeko autoekin. Pisuak eta potentziak ez du zerikusirik. Nire autoak 200 zaldi inguru izango ditu, eta ez da 500 kilotara helduko. Atera kontuak.

Auto hauekin ibiltzea espero zenuena izan al da?

Oso pozik ibili naiz. Gainera, ez dut aparteko arazo edo matxurarik izan, eta denboraldi polita atera zait.

Auto hauek aparteko ikusmina sortzen dute.

Bai, auto bereziak dira. Eta zainketa ere halakoa eskatzen dute. Ordu asko sartzen ditugu autoak doitzen, lan handia dute. Etxean errebisatu eta konpontzen dut ahal dudana guztia. Kaleko auto bati ez diozu kasurik egiten eta ez du arazorik



ematen. Baina auto hauek geroz eta gehiago begiratu, nik uste geroz eta gehiago apurten direla. Gehienbat autoa ongi doitzeko kontua da: suspentsioak, alineazioak... ongi jarri.

Pantxo Egozkueri aitortza egin zenioten pilotuek Urbasako Igoerari ekin baino lehen. Entrenamenduan istripu larria izatea, zorte txarra.

Denok dakigu zertan gabiltzan eta halakoren bat gertatu ahal zaigula, baina inoiz ez duzu



Ander Gurmino lehen mangako irteeran. Ezin izan zuen proba bukatu.



Delfin Goikoetxea, lehen manga bukatuta, asistentzia gunera jaisten.

tibatuta, eta Urbasako Igoerako 5,9 kilometro bihurriak eta 39 bihurguneak gainditzeko 3 minutu pasatxo behar izan zituen (3:16.701). Azken urteetan goiko

postuetan zebilen Ordoki, eta azkenean Urbasan bere lehen garaipena lortu du, entrenamendu ofizialean eta bi mangatan denborarik onena eginez. Behetik

gora egin zuen Iraolak, eta azken mangan egin zuen bere denborarik onena, 108 km/orduko batezbesteko abiadurarekin. Hori bai, joan zen urtean Joseba Iraolak ezarritako errekorretik (2:57.862) urruti geratu zen pilotu nafarra.

Andoni Blasen podiuma

Bigarren Sakana Motorsport taldeko Andoni Blas pilotua sailkatu zen (Speed Car GT 1000). Jaiotzez Doneztebekoa baina Lakuntzan bizi den pilotuak lan ederra egin zuen (3:27.964), eta Nafarroako Monoplazen Mendi Igoerako Txapelketa irabazteko beharrezko puntuak lotu zituen. Blas txapelketako lider iritsi zen Urbasara, baina lehia estua zuen Iker Palacios eskuderiako bere kide lakuntzarrarekin (BRC B52). Azkenean, Iker Palacios bosgarren sailkatu zen (3:36.596). "Hasieratik deseroso ibili naiz; ez nuen sentazio onik. Entrenamenduetan ez dut espero nuen denbora egin, eta ondoren arerioekiko nuen diferentzia horri buelta ematea ezinezkoa izan da. Hau horrela da; batzuetan ongi ateratzen da –joan zen urtean laugarren izan zen (3:19.020)–, baina beste batzuetan, ez". Hirugarren Durangalde Racingeko Josu Lertxundi bizkaitarra izan zen, zaleen miresmena piztu zuen Porsche GT3 Cupikusgarriarekin (3:33.495).



Iker Palacios ez zen eroso ibili eta bosgarren sailkatu zen.



Arkaitz Ordoki, asistentzia gunean, bere taldearekin.

Besgaren sustoa

Eneriz Besga pilotu olaztiarra izan zen eguneko sustoa. Besgak (Renault Megane) istripua izan zuen, eta autoa iraulita geratu zen, buelta emanda. Zorionez, ez zuen zauririk izan eta bere kabuz atera zen autotik. Ohiko matxura eta arazo mekanikoez gain, ez zen istripu gehiagorik izan. Bestalde, Ander Gurmindok ere (Renault Clio Sport) ezin izan zuen proba bukatu.

Guztira Sakana Motorsport taldeko hamar sakandarrek parte hartu zuten Urbasako Igoeran. Eta fin ibili ziren. Andoni Blasen podiuma eta Iker Palaciosen

bosgarren postuaz gain, aipatzen da Mikel Mendinueta arbi-zuarra (Peugeot 205 Gti) bere kategorian, 8. kategorian, onena izan zela, eta scratchean, edo sailkapen orokorrean, 40. (4:07.830).

Beroa, protagonista

Beroaz kezkatzen ziren pilotuak, suaren kontrako jantzietan izerdi patsetan zirela, asistentzia gunean arnasa ezin hartu. Ikusleendako ere, itzala izan zen altxorrik preziatuena. Gainontzean, beste behin, automobilismo festa ederra izan zen Urbasakoa.

pentsatzen gertatu daitekeela. Zoritarrez, Pantxori gertatu zitzaion, eta ea lehenbailehen osatu eta ongi jartzen den.

Azkeneko irabazle Joseba Iraolaren faltan, Arkaitz Ordoki zen favoritoa eta bera izan da garai-le. Podiumeko beste bi postuak lortzeko borroka, aldiz, oso latza izan zen.

Agian aurreko urteetan lasterketaren maila handiagoa zen, baina, hala ere, aurtengoa ez zen makala. Hasieratik denbora onak egin nituen eta horrek presioa kendu zidan. Helmugara iritsi eta denborak ikusten dituzunean, lasaitasuna ematen dizu edo urduriago jartzen zara, bietako bat. Zorionez, hasieratik ongi ibili nintzen eta bigarren izan nintzen. Hirugarren Josu Lertxundi izan zen, Porschearekin. Zein katxarro ederra (kar, kar).

Bigarren izatea espero al zenuen? Banekien arazo handirik ez bazegoen, aurrean egoteko aukera banuela. Mentalki ere indartsu nongoen. Izan

ere, automobilismoan autoa ez da faktore bakarra, mentalki ere ongi prestatu beharra dago.

Iker Palacios lakuntzarrarekin Nafarroako Monoplazen Mendi Igoerako Txapelketa zenuten jokoan. Zu lehena zinen, eta Iker bigarrena. Ikerrek ez zituen sentazio onak izan eta ez zuen bere benetako maila eman. Zu, aldiz, primeran aritu zinen.

Nafarroako Txapelketarako puntuatzen zuen lehen proban, Etxalar Igoeran, oso lasai atera nintzen. Hiru hilabete geldirik egon ondoren, lan ona egin nuen. Ongi atera zitzaidala ikusita, loarren, izpegin eta lbardinen ere lasai atera nintzen. Bigarrenak eta hirugarrenak, errazagoa egin zitzaizkidan. Eta Urbasan, oso ongi.

Araseko Igoera geratzen zen Nafarroako Txapelketa erabakitzeke, baina horren faltan ere dagoeneko txapelduna zara. Zorionak!

Eskerrik asko! Araseko Igoera bertan behera gelditu da, baina aurretik ere

puntuazioz txapelketa irabazia nuen. Oso pozik nago.

Zer nolako itzulera egin duzu automobilismora, Urbasan bigarren eta Nafarroako Mendi Igoerako Txapelketako txapeldun izanda.

Bai, bueltatu naiz, baina utziko dut, Urbasakoa azken lasterketa zelako. Arestian esan bezala, auto azkar hauekin lehiatzeko nuen kapritxo bat bete dut, denboraldia ongi atera da, gustura ibili naiz, eta kitto. Gustura jarraituko nuke, baina honek denbora asko eskatzen du, diru asko, eta gaur egun baditut beste egin behar batzuk. Pena ikaragarria dut, baina nahikoa egin dut eta utziko dut. Pozik noa, gozatu dudalako. Orain beste etapa bati ekingo diot. Zaletasuna mantenduko dugu, hori bai. Autoa saltzea da asmoa, eta hemendik aurrera beste gauza batzuk egitea. Bide batez, denboraldian asko lagundu nauten lagunak izan ditut alboan, eta izugarri eskertzen diet.

ELKETZ

tailerrak

Utzubar industrialdea 25 A (Arbizu)
948 461 779 | 619 454 355

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI
ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO

LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 /
kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 13

IRURTZUN Ikastaroa.

Hipopresibo ikastaroa: zoru pelbikoa eta sabelaren giharra indartzeko ariketa abdominal hipopresiboak; arnasa-apnearen bitartez lantzen den teknika. Adin guztietarako emakumeendako gomendagarria, bereziki kirolariendako, umetokia eta maskuria eroria dutenendako, erditu berri dutenendako eta pixa galera dituztenendako. Sakanako Mankomunitateak eta Nafarroako Kirolaren Institutuak antolatuta.
17:30etik 19:30era, kiroldegian.

ALTSASU Gazte agenda.

Argazkilaritza mugikorrean Sarean Euskaraz egitasmoaren ikastaroa.
18:00etatik 20:00etara,
Intxostiapunta gazte gunean.

LARUNBATA 14

BAKAIKU Topaketa.

VI. Katxarro eguna Klasikoen topaketa, Bakarrekoetxea elkarteak antolatuta Katxarros de maderaren laguntzarekin. Egunean zehar Mobylette Cady baten zozketa egingen dute.

ZORION AGURRAK



June Etxegoien
Zelaia
Urriaren 15ean.
Zorionak pittina! Oso ondo pasa zure eguna!
Aitona eta amonaren partez.



10:00-13:00 Klasikoen topaketa.
11:30 Parte hartzaileendako luntxa.
12:00 Sakanatik ibilbidea.
14:30 Bazkaria, elkartearen.
18:00 Discodelia Djak elkartearen.

ALTSASU Dantza ikuskizuna.

Yerma Federico Garcia Lorcaen obran oinarritutako dantza garaikideko ikuskizuna, Zu Performing Arts konpainiaren eskutik, Sendaberri Paisaia eszeniko berriak programaren barruan.
19:30ean, Iortia kultur gunean.

IRURTZUN Antzerkia.

Las de fuera antzezlanaren emanaldia egingen du Irunberriko antzerki tailerrak, Irurtzungo Antzerki Topaketen barruan.
20:00etan, kultur etxean.

IGANDEA 15

ALTSASU Gazte agenda.

Proiektzioa.
18:00etatik 20:00etara,
Intxostiapunta gazte gunean.

OLAZTI Hitzaldia.

Suizidioari buruzko hitzaldia, Iratxe Etxenike psikologoaren eskutik.
18:00etan, Maisuenea gaztetxean.

ASTELEHENA 16

ALTSASU Kontzentrazioa.

Sakanako Pentsiodunen Mugimenduaren pentsio duinen aldeko elkarretaratzea.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN

Golpe de suerte gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Igandea 15: 19:30
Astelehena 16: 19:00

Oppenheimer gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Osteguna 19: 19:00

12:00etan, udaletxearen aurrean.

ALTSASU Hitzaldia.

Setas de los bosques mediterráneos de la Península Ibérica Manolo Becerraren hitzaldia, XX. Mikologia Jardunaldien barruan, Altsasuko Mikologia Elkarteak antolatuta.
18:30ean, Iortia kultur gunean.

ASTEARTEA 17

LAKUNTZA Joskintza tailerra.

Patchwork tailerra antolatu du Sakanako Mankomunitateak, joskintza tailerren barruan.
17:00etatik 19:30era, Sakanako Mankomunitateko egoitzan.

ALTSASU Hitzaldia.

Zergatik atzeratzen da haurren hizkera? Zer egin dezakegu horren aurrean? Maite Redondo Neure klinikako neuropsikologoaren hitzaldia, euskaraz, Sakanako Mankomunitateak eta Altsasuko Udalak antolatuta.
18:00etan, Iortia kultur gunean.

ASTEAZKENA 18

ALTSASU Hitzaldia.

El sorprendente mundo de los hongos y sus propiedades Juanma Oliveiraren hitzaldia, XX. Mikologia Jardunaldien barruan, Altsasuko Mikologia Elkarteak antolatuta.
18:30ean, Iortia kultur gunean.

IRURTZUN Solasaldia

Aldamenekoa Ainaro Gorostizuren etorkinen lekukotzat jasotzen dituen liburuari buruzko solasaldia.
19:00etan, Pikuxarreko Ganbaran.



IRURTZUN Nire barnekaldiak Koldo Arnanz Zufiaurre artista altsasuarraren margolanen erakusketa.

Urriaren 31ra arte. Pikuxar tabernan.

IRURTZUN, ETXARRI ARANATZ ETA ALTSASU **Emozio ongizatea irudietan** argazki lehiaketaren irudien erakusketa, Ziordiko, Olaztiko eta Altsasuko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek antolatuta. Urriaren amaiera arte. Osasun etxeetan eta gizarte zerbitzuetako egoitzetan.



UHARTE ARAKIL **Nieva Ceniza** Hazturaren kontrako kronikak Ivan Benitez argazkilaria erakusketa.

Urriaren 29ra arte. Udaletxe plazan.

ALTSASU Hitzaldia.

Mustaza Sadparri elkartasun hitzaldia, Mustaza Sadpar, Isahq eta Alex Txikonekin.
20:00etan, Iortia kultur gunean.

OSTEGUNA 19

ALTSASU Ikastaroa.

Desfibriladore ikastaroa: kirol monitoreendako, entrenatzaileendako, kirol zuzendariendako eta prestatzaile fisikoendako ikastaroa. Aurretik online saio bat egin behar da.
16:30etik 19:30era, Gure Etxean.

ETXARRI ARANATZ Hitzaldia-tailerra.

Sexu aniztasuna hirietatik at Hiruki larroxa taldearen hitzaldi tailerra, euskaraz, eta *Armairutik Plazara!* Dokumentalaren eta ikastetxeetarako proposamen didaktikoaren aurkezpena. Askotariko Sakana.

Aniztasuna erein sexu eta genero aniztasunaren inguruko programaren barruan, Sakanako Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzuak eta Nafarroako Gobernuako LGTBI+ Berdintasunerako Zuzendariordetzaren laguntzarekin.
18:00etan, kultur etxean.

OSTIRALA 20

URDIAIN Ipuin erakusketa.

Aniztasunaren aldeko ipuinen maleta kuxkuxeatzen, Skolaeko maleta ibiltariak ezagutu eta kuxkuxeatzeko aukera. Askotariko Sakana.
Aniztasuna erein sexu eta genero aniztasunaren inguruko programaren barruan, Sakanako Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzuak eta Nafarroako Gobernuako LGTBI+ Berdintasunerako Zuzendariordetzaren laguntzarekin.
18:30ean, liburuetegian.

Erviti aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es



Ez bota etxea leihotik!

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

ESKELA



Felix Lezea Saldaña

Eskerrik asko
gure ondoan egoteagatik

Familia

ESKELA




Felix Lezea Saldaña

Zure irrifarra
beti gurekin
Bidaia on, Felix

Guaixeko lagunak

OROIGARRIA




Benigno Mendia Goikoetxea

VIII. urteurrena
(Urriaren 10ean)

"Gure bihotzetan zaude"

Zure familia eta lagunak
Urdiain



ESKELA



Felix Lezea Saldaña

Gero arte, gibelurdin

Zure kuadrilla

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 55,90€ / 106,5€ / 143,70€
prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK

ALOKAGAI

Altsasun 'Coworking' bulegoa autonomo eta urruneko langileentzat: Altsasun 4 edo 5 pertsonen artean partekatuzko bulegoa; Wifia, inprimagailua, berogailua, komuna eta *office*-a ditugu. Aukera paregabea! Informazio gehiago 948 562 604 edo 603 417 554 telefonoetara deituz.

LAN ESKAINTZA

Arakilgo Udalak dinamizatzaile kultural lanpostua aldi baterako betetzeko deialdia zabaldu du: Hautagaien zerrenda osatu nahi dute, lanaldi erdian, B mailako soldaterekin. Derrigorrezkoa C1 maila, gidabaimena eta autoa izatea. Informazio gehiago www.arakil.eus web orrian

IKASTAROKAK

Mank-en Hondakin zerbitzuak antolatutako joskintza tailerrak: Patchwork urriaren 17an 17:00etatik 19:30era, joskintza sortzailea haurrekin urriaren 24an 16:30etik 18:30era, sormenezko josi-pasadak urriaren 31ean 17:00etatik 19:30era, josteko makina egokitu edota erabiltzen ikasi azaroaren 7an 17:00etatik 19:30era, estanpazioa familian (hau bikoteka egingo da) azaroaren 14an 16:30tik 18:30era. Tailer guztiak Mank-en Lakuntzako egoitzan egingo dira. Tailerrak Erabili enpresarekin elkarlanean prestatu dira. Izena emateko info.hondakinak@sakana-mank.eus helbidera idatzi edo 674 144 114 telefonora Whatsapp mezua bidali lehenbaiten plazak 12

lagunetara mugatuak direlako. Izena emateko epea urriaren 16ean amaitzen da.

OPARITUTAKOAK

Katua oparitzen da: Bi hilabete inguru ditu eta bakarrik jaten du. Txikitxo da. Telefonoa 659 921 424.

OHARRA

Lakuntzako Udalaren euskara ikasleendako dirulaguntza: Aurreko ikasturtean euskara ikasi dutenendako dirulaguntza deialdia zabaldu du. 16 urtetik gorako lakuntzarrei zuzendua. Interesa duenak www.lakuntza.eus web orrian du aurkeztu beharreko dokumentazioa, urriaren 15a baino lehen. iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburrak.eus

JAIOTZAK

- **Uxue Jimenez Oraa**, irailaren 28an Olaztin
- **Ekai Segundo Salgado**, urriaren 3an Altsasun

HERIOTZAK

- **Felix Lezea Saldaña**, urriaren 10ean Altsasun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.



IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN

Izarra, Nafarroako tanatorioa
Gure lurra, gure jendea, gure sustraiak

BEILATOKIAK
ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI-ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 • www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- ✉ @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es



BAZTERRETIK

MIKEL MAIZA RAZKIN

Altxor bila

Mania bat daukat nik aspaldi. Liburutegira joaten naizen bakoitzean beti komikien sekzioan begiratzen dut, komikiren bat bilatzera joan ez banaiz ere. Beti egoten baita arreta ematen didan komikiren bat. Oraindik irakurri ez dudak komiki famaturen bat, autore bitxi baten manga bat, komiki berrien apalategia... Baina, hala ere, nire gustukoena altxor ezkutuak dira. Inoiz irakurri ez ditudan komikiak, marrazki bitxi edota autore ezezagunek idatzitakoak.

Komiki hauek etxera eramatea, airera txanpon bat botatzea bezala da. Ez dakizu zer daramazun eskutan, literalki. Marrazkiak gustuko badituzu, ez da seinale txarra, baina marrazkilari bikain batek ezin du gidoilari kaxkar batek hondatutakoa konpondu. Nire kasuan askotan haztatzen dut, eta horrela ez bada ere, honek ez dit eguna zapuztuko. Beti merezi baitu benetako altxor bat aurkitzeak.

"Buscavidas" zuen izena komikiak. 2011an argitaratu zuen Norma argitaletxeak. Cante flamenkoari buruzko

istorioa kontatzen digute harren?(arren? haren?) autore... frantsesek? Zer demontre? Azken datu honek eskemak hautsi eta komikia etxera eramateko behar nuen aitzakia eman zidan (ez dut aitzakia gehiegirik behar izaten, bestalde).

Komikia Andaluzian gertatzen da, eta Manuel eta Benitoren istorioa kontatzen digu. Bikote honek "cante" egiten bizi nahi du. Betidaniko "cante" egin nahi dute, eta ez rock xume eta moderno bat. Pobrezia, tristuraz eta arte askorekin hitz egin nahi dute, horrela baita beraiek bizitzen duten modua.

Komikia guztiz hunkitu ninduen tragedia bat da. Marrazkiak guztiz espresiboak dira, erabiltzen dituzten kolore gris eta okreek primeran jotzen baitute kontatzen den istorio latzarekin. Gainera, inoiz ez dut ikusi musika eta komikia horren batuta eta korapilatuta, aldi berean. Horren zaila da musikak paperean hots egitea... Betirako miretsiko dudak obra bat da "Buscavidas". Benetako altxor bat.



UTZITAKOA

Itsasperri pantaila handian

'La ermita' Carlota Peredaren bigarren filma Egiaerretako Itsasperri ermitan filmatu zuten, eta Catalunya 56. Zinema Fantastikoaren Nazioarteko Jaialdian aurkeztu dute eta Oficial Fantàstic - Sesiones Especiales kategorian lehiatzen du. Aritz Leoz ekoizle laguntzaile altsasuarrak lan egin zuten filmaren grabazioan.

Sarai Roblesek lortu du Altsasuko txartela

Urriaren 7an hasi zen Iruritan 2023ko Nafarroako Bertsolari Txapelketa. Idoia Granizo eta Ekain Alegre altsasuarrak hirugarren eta laugarren sailkatu ziren. Larunbatean eta igandean, Vianan eta Uhartan jarraituko du txapelketak

SAKANA

Sarai Roblesek irabazi du 2023ko Nafarroako Bertsolari Txapelketaren lehenengo kanporaketa, Iruritan. Azaroaren 4an Altsasuko Iortia kultur gunean jokatuko den finalaurrekorako txartel zuzena lortu du barañaindarrak. 140 bat bertsozale elkartu ziren Iruritako Gizarte Bilgunean. Sei bertsolari aritu ziren kantuan eta Maialen Belarrak egin zituen gai jartzaile lanak. Saio puntugarriaren ostean, Sarai Robles Vitasek lortu zituen puntu gehien, 354, eta Altsasuko finalaurrekorako txartela eskuratu zuen. Haren atzetik Saioa Alkaiza Guallar (333), Idoia Granizo Uribarrena altsasuarra (328,5), Ekain Alegre Gil altsasuarra (324), Eneko Fernandez Maritxalar (320,5) eta Egoitz Gorosterrazu Elizagoien (291,5) sailkatu dira. Final laurdenen fase osoa bukatu arte itxaron beharko dute sailkatzerik duten jakiteko.

Bihar, urriak 14, larunbata, Nafarroako Bertsolari Txapelketaren bigarren final laurdena izanen da, Vianako kultur etxean, 17:30ean, eta kantuan Julio Soto Ezkurdia, Xabat Illarregi Marzol, Ekhiñe Zapiain Arlegi, Patxi Castillo Graciarena, Urko Gartzia Aleman eta Aitor Irastortza Arriubieta bertsolariak ariko dira.



Nafarroako Bertsolari Txapelketaren Iruritako finalaurrekorako txartel zuzena lortu du barañaindarrak. NAF. BERTSOZALE ELKARTEA

Gai jartzaile Zigor Gartzia Arregi Zian arakildarra izanen da. Vianako irabazleak Agoizko finalaurrekorako sailkatzea lortuko du.

Etzi, urriak 15, igandea, Uharteko Arte Garaikideko Zentroan hirugarren final laurdena izanen da eta Ainara Ieregi Aramburu, Beñat Astiz Isasi, Eki Manteorena Zozaia, Joanes Illarregi Marzol, Julen Zelaieta Iriarte eta Mikel Lasarte Cia bertsolariak ariko dira; Ainhoa Larretxea Agirre izanen da gai jartzailea.

Laugarren final laurdena Leitzako Herri Aretoan izanen da, urriaren 21ean, larunbata, 17:30ean, eta bertan Eneko Lazkoz Martinez eta Saats Karasatorre Martinez bertsolari etxarriarrak ariko dira, Bittori Elizalde Soto, Endika Legarra Nuin, Fernando Ziganda Urdanpilleta eta Josu Sanjurjo Alzuri bertsolariekin batera. Uharteko eta Leitzako final laurdenetako irabazleek Lesakako finalaurrekorako txartel zuzena lortu dute. Saioetarako sarrerak bertsosarrerak.eus webgunean eros daitezke.

Irurtzun Antzerki Tailerren topagune izan da

Bihar, urriak 14, larunbata Irunberriko antzerki tailerrak 'Las de fuera' antzezlanaren eginen du, Irurtzunen

IRURTZUN

Angel Sagues antzerkigileak sortu eta zuzentzen duen *Las de fuera* antzezlanaren eginen du bihar, urriak 14, larunbata, 20:00etan, Irurtzuno kultur etxean. Irunberriko antzerki tailerrak tau-

laratuko du lana, eta sarrerak 5 eurotan eros daitezke Irurtzuno Udaleko webgunean edo kultur etxean.

Irurtzuno kultur etxea Atikus konpainiak eta herriko kultur zerbitzuak antolatutako Antzerki

Tailerren Topaketen egoitza izan da, eta zenbait antzerki tailer pasa dira Irurtzuno oholzatik. Hortaz, irailaren 23an Orkoiengo antzerki taldeak *Mira el lado guay de la vida* antzezlanaren aurkeztu zuten, Asun Abadek zuzendutakoa; irailaren 30ean, *Las crónicas de Peter Sanchidrian* antzezlanaren aurkeztu zuten Etxauriko antzerki tailerrak, Las Nenasek zuzenduta, eta urriaren 7an Oltza Zendeako antzerki tailerrak *Terciopelo* obra antzeztu zuten, Angel Saguesek zuzendutako lana.

Barnekaldeko paisaiak

Koldo Arnanz Zufiaurrek 'Nire barnekaldiak' erakusketa mustu du Pikuxarren. Artista altsasuarrak "barruan" dituen "istorioak eta paisaiak" islatu ditu inpresionismoa oinarri izanda. Erakusketa urriaren 31ra arte egonen da ikusgai Irurtzungo tabernan

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Altsasuko tailerrean Altsasuko Arte Azokan aurkeztuko duen koadroan lanean ari da Koldo Arnanz Zufiaurre artista. Paisaia bat da, baina inon ikus daitekeen paisaia bat. Duela "bizpahiru" urte hasi zuen prozesu berriarekin jarraituz, "barruan" duena kanporatzen ari da altsasuarra. Emaizta kolorez betetako paisaia espresionistak dira. Urriaren 3tik 31ra arte, Irurtzungo Pikuxar tabernan, *Nire barnekaldiak* Arnazen bederatzi margolanez osatutako erakusketa ikus daiteke.

Erakusketaren izenburuak nahiko argi uzten du: barnekaldiak. "Nire barrutik atera dudana da, bizitzan zehar zurrupatu dudana kanporatzea. Proiektu hau aspalditik nuen buruan, baina aparkatuta gelditu zen". Duela zenbait urte industria ondarearen inguruko proiektu batekin hasi zen, eta "nahiko nekatuta nengoen, gehiago sufritu nuen horrekin". Duela zazpi bat urte eten bat izan zuen, eta margotzera itzuli zenean proiektu honetan sartu zen: "Nire estiloa da, espresionismo hutsa. Buru belarri sartu nintzen aldatu nahian". Pastel margoekin "ikertzen" hasi zen, "nahiz eta ikertzen jarraitzen dudana, hori ez da inoiz uzten", eta oleoetara pasatzeko "gogoa" zuen artistak. "Oleoekin disfrutatzen dut eta erosoago mugitzen naiz".

Arnanz mendizalea da eta mendia "betidanik" gustatu izan zaio; bizitzan zehar ikusi dituen paisaiak islatzen ari da orain mihisean. "Barruan ditudan paisaiak dira, nire istorioak, baina transformatzen ditut; ez dira paisaia errealak". Koadroetan ikusten diren "hainbat elementu" ezagunak egin daitezke,

baina "koloreekin eta formekin jolasten dut, espresionismoaren munduan".

Artistaren proiektu pertsonalena dela esan daiteke. "Oinarrian" Alemaniako espresionismoa dago: "pila bat gustatzen zait, De Kooning, Max Pechstein, Franz Marc eta Euskal Herrian Zumeta espresionismo abstraktuaren barruan, esaterako". "Betidanik" jarraitu ditu altsasuarrak, "baina gero sortzen hasten naiz eta nirea egiten dut".

Espresionismoa

Artistaren ibilbidean etapa berri bat markatzen du *Nire barnekaldiak* ere. "Bestea aparkatu nuen dena eten zelako. Baina ez nuen horrekin jarraitu nahi. Txikitatik gustatu izan zaidan zerbait zen, industria ondarea, baina nik horrela funtzionatzen dut; etapa bakoitzean interesatzen zaidana lantzen dut. Ez naiz merkatuan dauden gauzekin eta abarrekin presionatzen". Barrutik sortzen zaiona egiten du.

Industria ondarearen proiektuarekin hasi aurretik Castillo Suarez idazlearekin *Mugarri estaliak* proiektua landu zuen Arnanzek. "Hori ere nire estiloa zen, espresionismoa, baina oraingoan nire gaia landu dut". "Koloreak" dira artistaren zeinuetaiko bat, "lantegiekin pixka bat moteldu nintzen, gaia horrekin nolabait behartu nuen nire burua hainbeste ez erabiltzera, baina koloreekin jolastea gustatzen zait". Beldurrik gabe koloreak

"BARRUAN DITUDAN PAISAIK DIRA, BAINA TRANSFORMATZEN DITUT; EZ DIRA ERREALAK"

erabiltzen ari da orain. "Nire tokira itzuli naiz, ez dut esaten besteetan ez nengola, baina gehiago disfrutatzen ari naiz".

Bizitutako esperientzien bozeto batekin hasten da dena. "Hasierako lana eta bukaerakoa bada eta ez da". Arkatz margoekin eta argizariekin bozetoa egiten du, eta bertan islatutakoa mihisera eramaten du, "koloreekin eta formekin jolasten hasten naiz eta gauzak aldatzen joaten dira. Normalean margotzen ari naitzen ez dakit noiz eta nola bukatuko den koadro bakoitza". Denborari dagokionez azaltzea "ezinezkoa" dela aipatu du artistak: "bi hilabete, bat edo lau izan daitezke. Lanak behar duena". Orain urriaren 20an mustuko duten Arte Azorako koadro batean lanean ari da.

Paisaiak

Nire barnekaldiak erakusketaren haria "estiloa eta gaia" dira. "Gauza desberdinak daude, baina paisaietan oinarritzen naiz. Normalean mendiko paisaiak dira eta ura agertzen denean ez da ondoratzen; lakuak dira". Pirinioetan askotan ibili izan da Arnanz, eta ikusten duen hori buruan gorde eta gero obretan islatu du. "Nire xedea koloretsua izatea zen. Espresionismoa bultzatzea eta barneko gauzak kanporatzea". Erakusketarako hautaketa egitea "erraza" izan dela esan du, Pikuxarreko horma txurietan bere lanen koloreak nabarmentzen direlako. "Muntatzen egon ginenean jendeak esaten zuen espazioak asko irabazten zuela. Ezer ez egotean kolore horietan nabaritzen da".

Pikuxarren "kontzeptua" gustatzen zaio Arnanzi: "Herriaren erdia, herriak eginga, eta kulturalki mugitzen dira".



Koldo Arnanz Zufiaurre artista tailerrean.



Pikuxarreko 'Nire barnekaldiak' erakusketaren koadro bat. PIKUXAR

"Denon arteko lanak garrantzitsuak dira"

Arbizuko Txistor Egunean, igandean, Ramoni Berastegi Untzilla tripotak eta odolkiak egiten egonen da. Langintza horretan aritutakoak dira ere, Maria Pilar Arbizu Berastegi eta Nekane Lakuntza Arretxe

Alfredo Alvaro Igoa ARBIZU

1 Txistor Eguneko auzolanean, noiztik?

Ramoni. Hasieratik ez bada, bigarren urteaz geroztik. Bizpahirutan kale egin nuen.

Maria Pilar. Hasieratik. Aurreneko urtean neronek txerriaren odola eta guzti hartu nuen.

Nekane. Hasieran parte hartzen nuen. Baina kanpinean lan egiten dut eta, azkeneko urteetan, ezin izan dut parte hartu.

2 Zergatik parte hartu?

N. Herria kanpoan ezagutzazteko egiten den festa da. Herrikideok parte hartzeko moduko kontu bat da, denon artean aurrera eramateko.

MP. Hemen beti izan da auzolanak egiteko ohitura. Eta festa egin behar zela esan zigutenean, gustura.

R. Herritarren artean giro polita sortzen da. Denon arteko lanak garrantzitsuak dira, nahiz eta galtzen ari diren. Baina polita da.

3 Auzolan gehiago egiten duzue?

R. Urtean lautan-edo egoten da, eta bizpahirutara joaten naiz.

MP. Txistor egunaz aparte, ez. Hasieran bai, baina gaixo egon naiz eta utzi ditut. Hauei nola



Ramoni, Maria Pilar eta Nekane, txistorra egiten den markesinan.

segitu erakutsi nien eta ni atzetik ibili naiz atzeneko urte hauean. Oso ongi moldatzen dira. Arbizu Kantuzekin plazan kantatzen ariko gara.

N. Ez, asteburuetan lanean ibili bainaiz, etxean ere nahikoa lan.

4 Zer ematen dizue auzolanak?

N. Momentu on bat pasatzea herrikideekin, ahalduguna emanez.

R. Denon artean laguntzen bagara askoz errazago egiten dira gauzak.

5 Txistor egunean zenbat arbizuar ariko dira auzolanean?

R. Ez dakit zenbat, beti txistorraren tokatu zaidalako, baina asko. Plazan jende pila egoten da. Bezperan prestatu behar dira postuak, azokarako.

MP. Gazte gehienak.

6 Igandean zer nolako auzolana egiten duzu?

R. Tripoten postuan egonen gara. Aurretik fanfarrearekin buelta bat ematera aterako gara, txistulariekin-eta.

7 Langintza nolako da?

MP. Lauzpabost lagun elkar-tu, denok elkarrekin, oso gustura. Gainera, bezperatik hasten gara. Tripotak martxan jartzeko bezperatik egiten genituen, eta dituzte. Txerri gantza, porrua eta tipula xehatzen da. Aurretik arroza egosita eduki behar da. Eta dena nahasten da. Bestela guztia igandean egiteko ez du denborarik ematen. Batzuk egunean egosteko uzten dira, jendeak nola egiten zen ikusteko.

N. Prest diren tripotak urez betetako pertzetan egosten dira. Eta jateko prest.

MP. Ordu eta erdi pasatxo egon behar dute suabe-suabe egosten. Ura pol-polka tripotak hausten dira.

8 Txistorrak ere egiten dituzue, ezta?

MP. Errazagoa da: masa egina ekartzen digute eta guk hesteak bete egiten ditugu.

R. Gehienbat jendeak ikusteko nola egiten zen lehen txistorra. Makinatik pasatzen da.

MP. Urtean bi txerri hiltzen genituen etxean; aldamenekoei eta familiakoei zati bat oparitzen zitzaien. Hasieran ez zen albaritaririk pasatzen, ondoren, Etxarrikoari zati bat eramaten zitzaion.

R. Baina Maria Pilar beti hor egoten da, laguntzen. Gainera, markesinaren ondoan bizi da. Tresnak beti izaten ditu prest.

9 Hilerokoa zuten emakumezkoek ezin zuten txistorrik egin?

MP. Ez dakit beste batzuetan, baina gure etxean sekula ez zaio horri begiratu. Oso ongi ateratzen ziren. Lehortzeko tokia behar zuen, hori bai. Garai batean denok beheko sua geneukan etxean, eta hura pizten zenean, zintzilik goian jartzen ziren, sukaldetan.

10 Txistorrarena, zozketa bidez?

N. Ez. Jendea behar zen. Lanak banatu ziren. Bakoitza zekiena egiten jarri zen. Nik etxean txerria hiltzen ikusia dut. Izeba ere etortzen zen.

MP. Lehengo jantziekin jantzita geunden hasieran.

N. Txerriatik dena aprobetxatu izan da, bizi guztian. Festa hasi zenean, jendeak nola egiten zen lan ikusteko, txerria bertan hil, zintzilikatu eta zatitzen zen. Debekatu zuten.

MP. Tripotak egin ondoren, geditzen zen gantzarekin, txantxi-gorrrak egiten ziren, postrea.

R. Urte batez xaboia egin genuen, gantza eta sosarekin. Beste urte batean hankak eta belarriak prestatu ziren.

11 Noiz hasiko zarete?

R. Plazan lehenago hasten dira, baina gu 09:00ak aldera.

N. Jendeak gustura ikusten du lehenago lan hori. Eta sekula ikusi ez duten gazteek ongi hartzen dute. Lehen ibilitakoren batek ere makinari buelta emateko gogoia izaten du, nostalgia?

R. Haurrek ere probatu nahi izan dute. Polita da, horrela ikasi egiten dute nola egiten zen.

MP. Egindako tripotak agudo jaten dituzte bertatik pasatzen direnek. Txistorrak plazara eramaten dira.

DISEINU GRAFIKOA

DISEINU KORPORATIBOA

DISEINU EDITORIALA

ILUSTRAZIOA

WEB DISEINUA

PUBLIZITATEA

ITZULPENGINTZA

ETA ZUK, ZER BEHAR DUZU?

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

gk DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA **fo**

619 821 436 | Foru plaza, 23-1. Altsasu
info@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus